

LONJALAN

Gure negozio idea lonjen ordukako alokairuan datza. Idea hau, batez ere, gazte taldeei, ikasle-taldeei eta ordenagailuarekin edo ofizinako lanean aritzen diren pertsonentzat zuzenduta dago. Gure proiektua berritzailea da, hilabetero ordaindu beharrean alokairua, pertsona horiek ordu ordu ordaindu dezaketelako, hau da, ez daude behartuta hilabete osoko alokairua ordaintzera, baizik eta, hor igarotzen dituzten orduen arabera izango da haien ordainketa. Gainera, lonjan interakzioa egon ahal da, bezeroak kontaktuan jarri ahal izango direlako haien artean aktibitateak egiteko, hala nola: txapelketak, etab., hau aurrerago azalduko dugu. Halaber, gure lokalaren bezeroak diren unibertsitateko ikasleei emango zaie aukera gure lokalean klase partikularrak emateko.

Hasieran lonja batekin hastea da gure helburua, gerora, arrakasta izanez gero, negozioa handituko dugu, lonja gehiago erosiz hiri berean edo beste batzuetan ere bai.

Lokalan hainbat toki desberdin daude, mahai bat aulkiekin lana egiteko edo jateko, egongela bat sofa batekin eta telebistarekin, kafe makina, mikrouhin labe bat, futbolin bat, komuna.... Ikasleek talde lana egiteko, ikasteko, lagunekin denbora atsegin bat pasatzeko etab. erabili ahal izango dute lokala. Gainera internet zerbitzua eskainiko zaie.

Erreserben kudeaketa web baten bidez egingo litzateke. Bertan egutegi eta ordutegi bat agertuko da lonja okupatuta dagoen orduetan eta egunetan erakusten duena. Honek errazago egingo du erreserbak egitea. Hala ere, gure telefono kontaktua agertuko da nahi izanez gero telefonoz erreserbatzeko.

Hortaz aparte, web-gunean esteka bat egongo da bezeroak kontaktuan jartzeko. Hau da, bezeroen artean, adibidez ikasteko, laguntza esakini ahal diote bata besteari, edo aktibitateak etab. antolatzeko bezeroak kontaktuan jarriko ahal dira. Modu honetan lonja elkartzeko leku bat izango da, bertan hainbat ekintza desberdinak egin ahal izango direlako. Web-gunean egutegiaz aparte, egongo da toki bat non bezeroek jarri ahal dituzte haien proposamenak jendea bilatzeko aktibitateak egiteko. Orduan norbaitek batu nahi bada haiekin, pribatua emango zaie eskubidea proposamena egin duen bezeroarekin kontaktuan jartzeko.

Bezeroei garantia bat eskatuko zaie, eta lokala gaizki uzten badute, ez zaie itzuliko. Ordainketa eta garantiaren itzulera web-aren bidez egingo litzateke.

Hasierako lonja gela bakarrekoa izango da, hala ere, lonja gehiago erosten edo alokatzen baditugu, gela gehiago izango dituzten lonjak izango ditugu, orduan, modu horretan, ordu batean bi bezero, bi behar desberdinak dituztenak, baino gehiago egon ahal dira aldi berean lonja erabiltzen. Horrela ordu batean, bezero bakar batetik diru sarrerak jaso beharrean, diru sarrera gehiago izango ditugu. Baina esan duguna, hori alokatzen edo erosten dugun lonjaren arabera izango da, lehen aipatu dugun moduan, hasieran lonja batekin hasiko gara, gerora, negozioa ondo joaten bada, lonja handiagoak eta gela desberdinekin hartuko ditugu.